

ILLEN ARGIAK

Beraztegi'n batzuk siñesten dabe, norbait ilten danean, bere arimea zerura bidean ondo ibilliko ba'da, argia bear dauala. Orretarako iñor ilten danean, sendi beartsuenetakoa ba'da be, argi asko biztutzen dautsez eleizan, orretarako sendi bakoitzari izentautako jarleku edo illobian.

Gaur ez dabe askok onako gauzarik siñesten; eta argia Jaunari bakarrik eskintzen dautsoe.

Orain urte bi dirala eleizako parrokoak bi edo iru argi bakarrik biztuteko, agindu eban, bestela eleizako ormak keaz baltzitu egiten zirala-ta. Ez eban, baiña, jendeak parrokoaren agindua ontzat artu. Emakumeak, batez be, asarratu ziran euren illen arimak argi barik itzi bear ebezalako.

Egun areitan, emakume bategaz berbetan nengoan, eta asarre samar egoala-ta, auxe itandu neutsan:

Baiña, andrea..., illen arimak zerura joateko argirik bear dabela, siñesten al dozu?

Bai..., bear ez ba'lebe ez geunskioez jarriko. Ara, orain asko ez dala, Somorrostro'ko meatz-zulo baten, lurrak mea-gizon mordo bat azpian artu eban. Mea-gizon oneitako baten amak eleizan egunero argia biztutzen eban; egun bat bakarrik itzi ei eban biztu barik. Egun batzuk igarota, mea-gizon a bizirik atera ei eben lurpetik, eta esan ei eban:

—Egun baten bakarrik egon nok (naz) jana, edana ta argirik barik.

—Zein egun zoan (zan), egun ori?

Araiñegun.

Aiko!, egun orretantxe bakarrik itzi naioan (neban) neure jarlekua argi barik.

Irakurle: Idoia Laburu, Langilea, Zornotza